

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea 2020ko udal aurrekontuari eta lanpostu zerrendari

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 12ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udalaren 2020ko aurrekontu orokorrari.

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko da.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Guardia, 2019ko abenduaren 23a

*Alkate-lehendakaria*

*LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO*